# Xedapen Orokorrak

**INGURUMEN ETA
LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA**

**600**

14/2009 DEKRETUA, urtarrilaren 27koa, Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planaren 1. aldaketa, Trukutxo eta Amue eremuei dagokiena, behin betiko onartzeko dena.

1.– Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana Jaurlaritzaren Kontseiluaren otsailaren 21eko 32/2006 Dekretu bidez onartu zen behin betiko.

Plan horretan Eremu Funtzional osoaren antolamendua dago ezarrita, Aia, Aizarnazabal, Azpeitia, Azkoitia, Beizama, Errezil Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Sustapen eta Lurralde Antolamendurako Departamenduak elkarrekin sustatu dute Lurraldearen Zatiko Plan horren aldaketa, Azpeitiko Lasao-Badiolegiko ekonomi jarduueretarako lurzorua Trukutxo eta Amueko eremuak erantsiz handitzeko.

3.– Aldaketa horrekin, Lasaon, Anardi eta Badiolegiren artean dagoen Trukutxo izeneko barnebidea jarduera ekonomikoetarako indartu nahi da; hara eraman nahi dira dagoeneko finkatutako bizitegi guneen inguruan dauden industriako jarduerak; bestalde, Amue esparrua hiriberritu nahi da, Azpeitiko herrigunearen erdi-erdian baitago. Horretarako, gune hori bizitegirako garatu nahi da lehendik lehenetsita dauden ekonomia-jardueren ordez.

4.– Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuak 2007ko uztailaren 6an emandako Agindu bidez, aldaketa hori funtsezkoa ez zela adieraztea xedatu zuen; aldaketa hori izapidetzerakoan irailaren 9ko 206/2003 Dekretuan aurreikusitako izapideak egin dira; dekretu horretan arautu zen funtsezkoak ez diren Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideen, Lurraldearen Zatiko Planen eta Lurraldearen Arloko Planen aldaketak onartzeko prozedura.

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO**

**600**

DECRETO 14/2009, de 27 de enero, por el que se aprueba definitivamente la 1.ª Modificación del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Zarautz-Azpeitia (Urola Costa) referida a los ámbitos de Trukutxo y Amue.

1.– El Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Zarautz-Azpeitia (Urola Costa), fue aprobado definitivamente por el Consejo del Gobierno Vasco mediante el Decreto 32/2006, de 21 de febrero.

Este Plan establece una ordenación integral para todo el Área Funcional, que comprende los términos municipales de Aia, Aizarnazabal, Azpeitia, Azkoitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa y Zumaia.

2.– La Dirección de Ordenación del Territorio de la Administración General del País Vasco y el Departamento para la Promoción y Ordenación Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa han promovido conjuntamente la redacción de la modificación del citado Plan Territorial Parcial, referida a la ampliación del suelo para actividades económicas de Lasao-Badiolegi en el término municipal de Azpeitia, añadiendo los ámbitos de Trukutxo y Amue.

3.– Dicha modificación tiene por objeto por un lado, la potenciación del corredor situado al sur de Lasao entre Anardi y Badiolegi, denominado Trukutxo, como corredor con destino a la implantación de actividades económicas con capacidad para acoger la relocalización de actividades industriales situadas en entornos inmediatos a los asentamientos residenciales consolidados, y por otro, prevé la regeneración urbana del ámbito de Amue, zona central del núcleo urbano de Azpeitia, para la que se propone su transformación acogiendo nuevos desarrollos residenciales alternativos a los de actividades económicas preexistentes y predefinidos como preferentes.

4.– Dado que mediante Orden de 6 de julio de 2007, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, se dispuso declarar el carácter no sustancial de la presente modificación, en la tramitación de la misma se han observado los trámites previstos en el Decreto 206/2003, de 9 de septiembre, por el que se regula el procedimiento para la aprobación de las modificaciones no sustanciales de las Directrices de Ordenación Territorial, Planes Territoriales Parciales y Planes Territoriales Sectoriales.

5.– Aipatutako Lurraldearen Zatiko Planaren aldaketan sartuta daude Dekretu honen I. eranskin moduan argitaratzeko doazen Antolamenduko Arauak.

6.– Bestalde, Dekretu honen II. eranskin moduan doa Planaren Aldaketan ingurumen alderdiak sartzeko erabakiaren derrigorrezko adierazpena, apirilaren 28ko 9/2006 Legean, plan eta programa jakinak ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzkoan; eta 183/2003 Dekretuan, Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duenean xedatutakoa betetzeko. Ondorioz, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra***.– Behin betiko onartzen da Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planaren 1. aldaketa, Trukutxo eta Amue eremuei dagokiena; Dekretu honen I. eranskinean daude jasota eremu horiek antolatzeko arauak.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Indarrean dagoen Azpeitiko Udal Plangintza Aldaketa honetara egokitu beharko da, aldaketa indarrean sartzen denetik hasi eta bi urteko epean.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko urtarrilaren 27an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ingurumen eta
Lurralde Antolamendu sailburua,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

5.– La referida Modificación del Plan Territorial Parcial incorpora las Normas de Ordenación que se acompañan como anexo I al presente Decreto para su publicación.

6.– Por otra parte, en cumplimiento de lo dispuesto tanto en la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente, como en el Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, se acompaña como anexo II a este Decreto la preceptiva declaración sobre la decisión adoptada en relación a la integración en la Modificación del Plan de los aspectos medioambientales. En su virtud, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 27 de enero de 2009,

DISPONGO:

***Artículo único.***– Se aprueba definitivamente la 1.ª Modificación del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Zarautz-Azpeitia (Urola Costa) referida a los ámbitos de Trukutxo y Amue, cuyas Normas de Ordenación se incluyen como anexo I al presente Decreto.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

El planeamiento municipal vigente de Azpeitia deberá de adaptarse a lo dispuesto en esta modificación en el plazo máximo de dos años a contar desde su entrada en vigor.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de enero de 2009.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Medio Ambiente
y Ordenación del Territorio,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

I. ERANSKINA

ZARAUTZ-AZPEITIA (UROLA KOSTA) EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN 1. ALDAKETA, TRUKUTXO ETA AMUE EREMUEI DAGOKIENA, ANTOLATZEKO ARAUAK

TITULU OSAGARRIA

APLIKATZEKOAK DIREN ARAU OSAGARRIAK

I. KAPITULUA
AMUE ESPARRUA

***1. artikulua.***– Hiri-kokalekuak eta Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

1.– Amueko esparrua dentsitate handiko bizitegi-garapen berriko lehentasuneko eremu gisa identifikatzen da, Lurraldearen Zatiko Planeko izendegiari jarraituz.

2.– Esparrua hirigintza-garapen berriak har ditzakeen esparrutzat jotzen da espresuki, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean (isurialde kantauriarra) ezarritakoaren ondorioetarako.

***2. artikulua.***– Trenbide-azpiegitura.

Amueko esparruaren hirigintza-antolamenduak ebatzi egin beharko ditu Azpeitiko hirigunean zehar Urolako trenbideko trenen joan-etorriak, edo justifikatu egin beharko du planteatzen den Lurraldearen Zatiko Planean aurreikusten den lurralde-ereduaren araberako ordezko irtenbidea.

***3. artikulua.***– Motorrik gabeko bide-sistema.

Antolamenduak motorrik gabeko bideen trazadura berregokituko du, eta Amueko esparruan eta hurbileko ingurunean, Urola eta Ibaieder ibaien korridoreetako bidegorrien jarraitasun-baldintzak hobetuko ditu, ezarritako eta aurreikusitako tokiko sarearekin koordinatuta.

***4. artikulua***.– Poluituta egon daitezkeen lurzoruen gaineko eragina.

Amueko esparruan, bestalde, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legean xedatzen dena hartu beharko da bereziki aintzat.

II. KAPITULUA
TRUKUTXO ESPARRUA

***5. artikulua.***– Hiri-kokalekuak eta Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

1.– Trukutxoko esparrua ekonomia-jardueren garapen berriko lehentasuneko eremu gisa identifikatzen da, Lurraldearen Zatiko Planaren izendegiarekin jarraituz. Hori dela eta, Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko

ANEXO I AL DECRETO 14/2009,
DE 27 DE ENERO

NORMAS DE ORDENACIÓN DE LA 1.ª MODIFICACIÓN DEL PLAN TERRITORIAL PARCIAL DEL ÁREA FUNCIONAL DE ZARAUTZ-AZPEITIA (UROLA COSTA) REFERIDA A TRUKUTXO Y AMUE

TÍTULO ADICIONAL

NUEVAS NORMAS ADICIONALES DE APLICACIÓN

CAPÍTULO I
ÁMBITO DE AMUE

***Artículo 1***.– Asentamientos Urbanos y Plan Territorial Sectorial de márgenes de ríos y arroyos.

1.– El ámbito de Amue se identifica como Área Preferente de Nuevo Desarrollo Residencial de Alta Densidad de acuerdo con la nomenclatura del Plan Territorial Parcial.

2.– El ámbito se considera expresamente como un Ámbito con Potencial de Nuevos Desarrollos Urbanísticos a los efectos de lo establecido en el Plan Territorial Sectorial de ordenación de márgenes de ríos y arroyos de la CAPV (vertiente cantábrica).

***Artículo 2.***– Infraestructura ferroviaria.

La ordenación urbanística del ámbito de Amue deberá contemplar la resolución del tránsito ferroviario del ferrocarril del Urola a través del núcleo de Azpeitia o justificar la solución alternativa que en su caso se plantee al efecto de acuerdo con el modelo territorial previsto en el Plan Territorial Parcial.

***Artículo 3.***– Sistema viario no motorizado.

La ordenación reajusta el trazado viario no motorizado en Amue y su entorno inmediato mejorando las condiciones de continuidad de las vías ciclistas en los corredores del Urola y del Ibai eder, en coordinación con la red local implantada y prevista.

***Artículo 4***.– Afección a suelos potencialmente contaminados.

En el ámbito de Amue se deberá considerar especialmente cuanto se dispone en la Ley 1/2005, de 5 de febrero, para la Prevención y la Corrección de la Contaminación del Suelo.

CAPÍTULO II
ÁMBITO DE TRUKUTXO

***Artículo 5.***– Asentamientos Urbanos y Plan Territorial Sectorial de márgenes de ríos y arroyos.

1.– El ámbito de Trukutxo se identifica como Área Preferente de Nuevo Desarrollo de Actividades Económicas de acuerdo asimismo con la nomenclatura del Plan Territorial Parcial, considerándose expresamente

Lurraldearen Arloko Planaren (isurialde kantauriarra) ondorioetarako hirigintza-garapen berriak har ditzakeen esparrutzat hartzen da espresuki.

2.– Bestalde, Urola ibaiaren ibilguaren 22 eta 23,5 puntu kilometrikoen artean instalazio siderurgikoaren proiektua tokian integratzea aginduko dute udal-plangintza orokorrak eta ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlanak. Urpean geratzeko arriskua ezabatzen dela justifikatu beharko da hidraulikoki, eta, ondorioz, Urola ibaiaren ezkerraldean eraikuntzak eta urbanizazioak ibilguarekiko gorde beharreko tarteak egokitu beharko dira, betiere Uren Euskal Agentziaren arabera. Edonola ere, ezkerraldean eta uretan gora dagoen haltzadia babesteko proposamenari eutsiko zaio, baita iparraldean eta ibilguaren ezkerraldean dagoen astigar zurien formazioa babesteko proposamenari ere.

3.– Esku-hartzeak, beraz, puntualki berregokituko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren (isurialde kantauriarra) ondorioz aplikatzekoak diren zehaztapenak –abenduaren 22ko 415/1998 Dekretu bidez onartu zen Lurraldearen Arloko Plan hori–.

***6. artikulua***.– Trenbide-azpiegitura.

Trukutxoko esparrura trenbidea sartzeko aukera barne hartu beharko da Planaren antolamenduan, merkantzien garraio iraunkorragoa ahalbidetzearren.

***7. artikulua***.– Motorrik gabeko bide-sistema.

Trukutxoko esparruko motorrik gabeko bide-trazadura berregokituko du antolamenduak, eta Urolako korridoreko bidegorriaren jarraitasuna bermatuko du.

III. KAPITULUA
ZEHAZTAPEN OROKORRAK

***8. artikulua***.– Aplikatzekoak diren neurri babesleak eta zuzentzaileak.

Dokumentu honetako ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlanean ezartzen diren neurri babesleak eta neurri zuzentzaileak aplikatuko dira, betiere atmosferari, geologiari, geomorfologiari, hondakinei, ibai-sistemari, urari, lurzoruari, landarediari, faunari, paisaiari, ingurune sozio-ekonomikoari eta kultura-ondareari dagokionez.

***9. artikulua***.– Urbanizazioari, eraikuntzari eta mugikortasunari dagozkion iraunkortasun-neurriak.

1.– Planaren aldaketa honetako ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlanean ezartzen diren iraunkortasunaren arloko neurriak hartuko dira, betiere urbanizazioari, eraikuntzari eta mugikortasunari dagokionez.

2.– Amueko esparruaren aldaketaz baliatuta, Azpeitiko hirigunean proposatutako trenbide-trazadurarako irtenbidea bermatuko du Azpeitiko udal-plangintza orokorrak, baita esparruan zehar motorrik gabeko bidesistemaren jarraitasuna ere.

como un Ámbito con Potencial de Nuevos Desarrollos Urbanísticos a los efectos de lo establecido en el Plan Territorial Sectorial de ordenación de márgenes de ríos y arroyos de la CAPV (vertiente cantábrica).

2.– Complementariamente se establece que entre los PK 22 y 23,5 del curso del Urola el planeamiento general municipal, con su correspondiente estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, ordenará la inserción del proyecto de instalación siderúrgica en el lugar justificando hidráulicamente la supresión del riesgo de inundabilidad y ajustando al efecto las distancias de la edificación y la urbanización al cauce del río Urola en su margen izquierda, con el acuerdo de la Agencia Vasca del Agua y manteniendo la aliseda situada aguas arriba en la margen izquierda y la formación de plátanos existente al norte en la misma margen.

3.– La intervención supone así el reajuste puntual de las determinaciones de aplicación dimanantes del Plan Territorial Sectorial de ordenación de márgenes de ríos y arroyos de la CAPV (vertiente Cantábrica), aprobado por Decreto 415/1998, de 22 de diciembre.

***Artículo 6***.– Infraestructura ferroviaria.

Se incorpora a la ordenación del Plan la accesibilidad ferroviaria al ámbito de Trukutxo con el objeto de posibilitar un transporte de mercancías más sostenible.

***Artículo 7***.– Sistema viario no motorizado.

La ordenación reajusta el trazado viario no motorizado en el entorno de Trukutxo, garantizando la continuidad de la vía ciclista del corredor del Urola.

CAPÍTULO III
DETERMINACIONES GENERALES

***Artículo 8***.– Medidas protectoras y correctoras de aplicación.

Se adoptarán con carácter general las medidas protectoras y correctoras establecidas en el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental del presente documento en relación con la atmósfera, la geología y la geomorfología, los residuos, los sistemas fluviales y el agua, el suelo, la vegetación y la fauna, el paisaje, el medio socio-económico y el patrimonio cultural.

***Artículo 9***.– Medidas de sostenibilidad en relación a la urbanización, edificación y movilidad.

1.– Se adoptarán con carácter general las medidas en materia de sostenibilidad en relación a la urbanización, edificación y movilidad establecidas en el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental de la presente modificación de plan.

2.– Con ocasión de la transformación del ámbito de Amue por el planeamiento general municipal se garantizará la solución a adoptar en relación con el trazado ferroviario propuesto en el núcleo urbano de Azpeitia así como la continuidad a través del ámbito del sistema viario no motorizado.

***10. artikulua.***– Aldaketa gainbegiratzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko programa.

Plangintzaren izapideak direla kausa, eta plangintza hori Amueko eta Trukutxoko esparruetan gauzatzeaz baliatuta, Planaren aldaketa honetako ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlanean jasotzen den ingurumen arloan gainbegiratzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko programa aplikatuko da.

II. ERANSKINA

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO-PROZEDURA ARAUTZEN DUEN UZTAILAREN 22KO 183/2003 DEKRETUAREN 15. ARTIKULUAN EZARRITA DAGOENAREN INGURUKO ADIERAZPENA: TRUKUTXO ETA AMUEKO ESPARRUETAN ZARAUTZ-AZPEITIKO FUNTZIO-ARLOKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA ALDATZEAREN INGURUKOA

Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren 15. artikuluan ezarrita dagoenaren inguruko adierazpena: Trukutxo eta Amueko esparruetan Zarautz-Azpeitiko Funtzio-arloko Lurraldearen Zatiko Plana aldatzearen ingurukoa.

Trukutxo eta Amueko esparruen inguruko Zarautz-Azpeitiko Funtzio-arloko Lurraldearen Zatiko Planaren aldaketa idatzi eta bideratzeko lanak direla eta, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuaren prozesu etengabea egin da. Hertsiki, xedapen hauen arabera egin da prozedura: zenbait plan eta programak ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legea eta Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legea, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua (bereziki, lurralde-plangintzaren arloan).

Lurralde-plangintzan proposatutako aldaketaren oinarria lurralde-antolamenduan garapen iraunkorraren printzipioa sartzea da; lurraldeak duen harrera-gaitasuna, behar sozio-ekonomikoak eta ingurumenaren eta hirigintzaren ikuspegia. Oinarrizko irizpide horietatik abiatuta, eta EAEko, Espainiako eta Europako ingurumen-politikako printzipio gidariekin bat, Corrugados Azpeitia enpresaren galdaketa eta ijezketa instalazioak beste toki batean kokatzeko beharrei erantzuten zaie; instalazio berriak modernoak eta esponjatuak izango dira, eta egungo araudiaren eta ingurumen-balioen araberakoak.

***Artículo 10.***– Programa de Supervisión, Seguimiento y Control de la Modificación.

Con ocasión de la tramitación del planeamiento y de la ejecución del mismo en los ámbitos de Amue y Trukutxo se aplicará el programa de supervisión, control y seguimiento ambiental recogido en el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental de la presente modificación de plan.

ANEXO II AL DECRETO 14/2009, DE 27 DE ENERO

DECLARACIÓN A EFECTOS DE LO DISPUESTO EN EL ARTÍCULO 15 DEL DECRETO 183/2003, DE 22 DE JULIO, POR EL QUE SE REGULA EL PROCEDIMIENTO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL, RESPECTO A LA MODIFICACIÓN DEL PLAN TERRITORIAL PARCIAL DEL ÁREA FUNCIONAL DE ZARAUTZ-AZPEITIA REFERIDA A LOS ÁMBITOS DE TRUKUTXO Y AMUE

Declaración a efectos de lo dispuesto en el artículo 15 del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, respecto a la Modificación del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Zarautz-Azpeitia referida a los ámbitos de Trukutxo y Amue.

Con ocasión de los trabajos de redacción y tramitación de la Modificación del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Zarautz-Azpeitia referida a los ámbitos de Trukutxo y Amue se ha llevado a cabo un proceso continuo de evaluación conjunta de impacto ambiental, procedimiento que se ha desarrollado estrictamente de acuerdo con la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente y con la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco y el Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula precisamente el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, en especial, de la planificación territorial.

La modificación de la planificación territorial propuesta se sustenta sobre la base de incorporar el principio del desarrollo sostenible en la ordenación territorial considerando la capacidad de acogida del territorio, las necesidades socio-económicas y la perspectiva ambiental y urbanística. A partir de estos criterios básicos, y en coherencia con los principios rectores de la política ambiental vasca, española y europea, se responde a las necesidades de reubicación de las instalaciones de fundición y laminación de la empresa Corrugados Azpeitia dentro del Área Funcional, procurando unas condiciones de implantación en destino modernas y esponjadas, a la vez que conformes a la actual normativa y valores ambientales.

Instalazio berria jartzeko eta aukerak bilatzeko ingurumen-irizpide estrategiko gisa, abiaburuko premisak hauek dira: esparru horretako babes bereziko gune edo inguruak ez kaltetzea, esparru horretako lurralde-ereduagatik zaindutako leku osagarriak ez hondatzea, hiriko bizitegigune nagusietatik urruntzea, oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna erraztea eta esparrura garraio kolektiboan iristeko aukera ematea, enpresara eraman beharreko salgaiak errepidez ibilbide luzeetan garraiatzearen eragina txikiagotzea, eta enpresaren instalazio batzuetatik besteetara salgaiak garraiatzearen eragina murriztea.

Testuinguru horretan, indarrean dagoen lurralde-ereduak eskaintzen dituen aukerek (Urrestilla eta Oñartxoko igarobidea) ez diete erantzuten bideragarritasunerako helburu estrategikoei. Helburu horiek enpresaren kokapen alternatiboari dagozkio, eta Lasaon eta hirigunearen ipar-ekialdean finkatzen ari diren instalazioetatik hurbil kokatzea da xedea, trenbidearen ondoan, ibarrean burdinari lotuta gertatu den integrazio bertikalaren prozesuari eta horren inguruan sortzen diren eskalako ekonomia-multzoari eutsiz. Ingurumen-helburu estrategikoei ere ez diete erantzuten indarrean dagoen lurralde-ereduko aukerek: ibilbide labur zein luzeetan salgaiak errepidez garraiatzearen eragina murrizten ahalegintzea da helburua. Gainera, kalte egiten zaio Ibai Ederreko igarobideari (GI-2.635), kamioien zirkulazioa era esanguratsuan areagotuko litzatekeelako.

Aintzat hartu diren beste premisa batzuei ere, adierazitako helburuei erantzuteko aukera ematen duten premisak izanik, ez zaie erantzunik aurkitu: hala nola, lurzoru artifizialdu zaharkituak edo erabilgarriak identifikatzea. Hori dela eta, Urolako bailarako ingurune hurbilera mugatu da bilaketa, eta leku bakarra identifikatu da, arrazoiren bat edo bestegatik babestuta ez dagoena eta, a priori, eragin kritikoak izan ez ditzakeena. Leku hori, hain zuzen ere, Anardi-Badiolegi ingurua da, Lasaoren hegoaldeak, eta Trukutxo toponimoarekin identifikatzea adostu da. Horren ondoko beste esparru batzuk ere aukerakotzat har zitezkeen, halaber, bideragarritasunaren irizpide estrategikoen ikuspegi hertsitik: hala nola, Zestoako bainuetxearen hegoaldean dagoen meandroa, Badiolegiren hegoaldean dagoen ibarra edo Loiolako ibarra. Hala ere, baztertu egin dira, ingurumenaren alorreko irizpide estrategikoak ezartzean.

Egoera horretan, 25 Ha inguruko azalera duen Trukutxoko esparrua, proposatutako eskaerari erantzuteko moduko aukera dela egiaztatu da, aipatutako bideragarritasunaren eta ingurumenaren arloko irizpide estrategikoekin bat. Herritarren interesari men egitearen, partaidetzaren eta jendaurreko informazioaren printzipioak ere betetzen ditu. Dagokion IEBEan aurreikusitakoaren arabera, egoera berrian Azpeitiko herrirako Amueko esparrua berreskuratzeko posible den berrantolamendua, aldez aurretik ezarritako lurralde-ereduan sartzen da.

Como criterios ambientales estratégicos para la nueva implantación y la búsqueda de alternativas son premisas de partida no afectar a espacios o entornos objeto de especial protección del ámbito territorial; no alterar aquellos lugares adicionales preservados por el modelo territorial del ámbito; alejarse de los principales núcleos urbanos residenciales; favorecer la movilidad peatonal y ciclista al igual que la accesibilidad al ámbito mediante transporte colectivo; procurar minimizar el impacto del transporte de mercancías por carretera, de largo recorrido, con destino a la empresa así como la reducción del impacto del transporte de mercancías entre las distintas plantas de la empresa.

En este contexto las opciones que ofrece el modelo territorial vigente (corredor de Urrestilla y Oñartxo) no responden ni a los objetivos estratégicos de viabilidad relativos a la localización alternativa de la empresa en proximidad con las instalaciones de la misma que se consolidan en Lasao y al noreste del núcleo urbano, manteniendo así el proceso de integración vertical ligado al hierro en el valle y el conjunto de economías de escala que se generan en torno al mismo, y a su localización junto a la línea ferroviaria proyectada, ni a los objetivos ambientales estratégicos de procurar la reducción del impacto del transporte de mercancías por carretera, tanto de corto como de largo recorrido, incidiéndose además de manera negativa en el corredor del Ibai eder (GI-2.635) ya que se produciría un incremento significativo del tráfico de camiones.

Otras premisas consideradas como la identificación de suelos artificializados obsoletos o disponibles capaces de dar respuesta a los objetivos enunciados tampoco han encontrado respuesta por lo que la búsqueda se ha ceñido al entorno próximo del valle del Urola, identificándose un único lugar que no se encuentra protegido por una u otra razón y no está sujeto, a priori, a probables efectos críticos. Dicho lugar es precisamente el entorno de Anardi-Badiolegi, al sur de Lasao, al que se ha convenido en identificar con el topónimo de Trukutxo. Otros ámbitos próximos al mismo, que podían haberse considerado asimismo idóneos desde la perspectiva estricta de los criterios estratégicos de viabilidad, como el meandro situado inmediatamente al sur del balneario de Zestoa, la vega situada al sur de Badiolegi o la vega de Loyola, se descartan sin embargo en aplicación de los criterios estratégicos de carácter ambiental.

En esta situación, el ámbito de Trukutxo con una superficie de alrededor de 25 Ha se ha confirmado como la alternativa capaz de dar respuesta a la demanda que se plantea, de acuerdo con los criterios estratégicos de viabilidad y ambientales referidos así como a los principios de subordinación al interés público y de participación ciudadana e información pública, y de acuerdo con lo previsto en la correspondiente ECIA, integrándose en el modelo territorial preestablecido la reordenación que en la nueva coyuntura resulta posible en orden a recuperar para la ciudad de Azpeitia el ámbito de Amue.

Horren ondorioz, plan bat sortzen da, eskaerari, helburuei eta etorkizunari doitua, eta, proposatutako antolamenduaren bidez, beharrei erantzuten die, lurraldeak duen harrera-ahalmena aintzat hartuz, hertsiki beharrezkoak diren baliabideak erabiliz, eta ingurumena hobetzeko esku-hartzeak ezartzeko egoera baliatuz. Esku-hartze horiek oso esanguratsuak dira, Amueko hirigunea bere onera ekartzean, eta horren ondorio dira ingurumenaren eta hirigintzaren arloko zenbait hobekuntza: besteak beste, hiriguneko ingurumenaren kalitatea hobetzea eta ibaiertza nahiz Ibai-eder ibaiaren bazterrak oneratu-berreskuratzea.

Lurraldearen Zatiko Planaren aldaketan, bestalde, plangintzaren maila horretan beharrezkoak diren babes-neurriak, neurri zuzentzaileak eta neurri orekatzaileak biltzen dira. Aldi berean, beste hauek ere jasotzen dira, ingurumenaren gaineko eraginaren txosten bakarrean aipatu bezala: hirigintza-antolamenduko proposamenen zehazpena, ingurumenaren gaineko eraginen ebaluazioa, bai eta udalerriko plangintza orokorrean Trukutxoko hirigintza-esparruak duen muga zehatza ere. Era berean, mugaketa horrek ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuari eta bestelako garapen nahiz egikaritzapen tresna batzuei jarraitu beharko die. Orobat, kontrola eta segimendua egiteko programa bat aurkezten du, neurri horiek betetzea eta deskribatutako ingurumen-balioak mantentzea bermatzeko. Hori guztia, babes-neurriei, neurri zuzentzaileei eta neurri orekatzaileei gehitu behar zaie, garapen-plangintzako baldintza-agirietan.

Ingurumenaren gaineko eraginaren txosten bakarrak adierazten duenez (Zarautz-Azpeitiko Funtzio-arloko Lurraldearen Zatiko Planaren Aldaketa bideratzeko prozesuan Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak emana eta Trukutxo eta Amueko esparruei dagokiona), proposatutako aukeratzeko irizpideei esker, balioa ematen zaio proposatutako aukerari eta proposatutako ingurumen-irizpide estrategikoak ere funtsezkoak dira, proposatzen den kokalekuaren aukera ulertzeko. Bestalde, txostenean ez da ikusten eragin kritikoak izan ditzakeela uste den jarduerarik, eta Lurraldearen Zatiko Planaren Aldaketako edukiak ez dira zalantzan jartzen, ingurumenaren ikuspegitik.

Horren guztiaren arabera, Trukutxo eta Amueko esparruen kasuan Zarautz-Azpeitiko Funtzio-arloko Lurraldearen Zatiko Planean egingo den aldaketaren behin betiko onespenaren agiriak proiektu jasangarria eta lurralde-ereduan integratua eskaintzen du; egoera orokorrean eta aurreikusitako denboraldian Iraurgiko esparruaren beharrei erantzuteko ezarritako lurralde-eredua da. Eta gainera, erantzun egokia ematen dio agiri horrek ingurumenaren gaineko eraginaren txosten bakarrean proposatutako guztiari.

De todo ello, resulta un Plan, ajustado en su dimensión a la demanda, objetivos y horizonte temporal, que mediante la ordenación propuesta responde a las necesidades atendiendo a la capacidad de acogida del conjunto del territorio, empleando los recursos estrictamente precisos, y aprovechando la coyuntura para implementar intervenciones de mejora ambiental, que adquieren una gran significación en la regeneración urbana de Amue con las consiguientes mejoras ambientales y urbanísticas, entre otras, de la calidad del medio ambiente urbano y la restauración-recuperación de la ribera y margen del río Ibai-eder.

La Modificación del Plan Territorial Parcial recoge por otra parte las medidas protectoras, correctoras y compensatorias precisas a este nivel de planificación, a la vez que remite, como se apunta también en el informe único de impacto ambiental, la concreción de las propuestas de ordenación urbanísticas, la evaluación de efectos ambientales e incluso la concreta delimitación del ámbito urbanístico de Trukutxo a la concreción del planeamiento general municipal, que habrá de someterse a su vez a evaluación conjunta de impacto ambiental, y a otros instrumentos de desarrollo y ejecución. Igualmente aporta un programa de control y seguimiento para garantizar el cumplimiento de estas medidas y el mantenimiento de los valores ambientales descritos, todo ello a incorporar junto a las medidas protectoras, correctoras y compensatorias en los pliegos de condiciones del planeamiento de desarrollo.

El informe único de impacto ambiental, emitido en el marco del proceso de tramitación de la Modificación del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Zarautz-Azpeitia referida a los ámbitos de Trukutxo y Amue por la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco, señala que los criterios de oportunidad planteados contribuyen a poner en valor la alternativa propuesta y que los criterios ambientales estratégicos planteados resultan también esenciales para entender la elección de la ubicación que se plantea. No se advierte por otra parte en el informe ninguna actuación cuyos impactos hayan sido valorados como críticos, a la vez que no se cuestiona desde la perspectiva ambiental los contenidos de la Modificación del Plan Territorial Parcial.

De acuerdo con todo ello, se entiende que el documento correspondiente a la aprobación definitiva de la Modificación del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Zarautz-Azpeitia referida a los ámbitos de Trukutxo y Amue, además de ofrecer un proyecto sostenible e integrado en el modelo territorial establecido para atender a las necesidades del ámbito territorial de Iraurgi en el horizonte temporal de su formulación y en la actual coyuntura general, responde oportunamente a cuanto se ha planteado en el informe único de impacto ambiental emitido en relación con el mismo.